



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014-2015 ikasturtea

GIZA-ERLAZIOEN PSIKOLOGIA: ADIMEN EMOZIONALA ETA GIZARTE HARREMANAK

Egilea: Ainara Ibáñez Villahizán

Zuzendaria: Eider Pascual Sagastizabal

Leioan, 2015eko maiatzaren 20an



ZUZENDARIAK O.E.

EGILEAK O.E.

© 2015, Ainara Ibáñez



AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. ESPARU TEORIKO ETA KONTZEPTUALA	6
1.1. ZER DA ADIMEN EMOZIONALA?	6
1.1.1. EREDU MISTOA	6
1.1.2. TREBETASUNEN EREDUA	7
1.2. HAURREN GARAPEN KOGNITIBO ETA SOZIALA	9
1.2.1 7-11 URTEKO UMEEN GARAPENA	9
1.2.1.1. GARAPEN KOGNITIBOA	9
1.2.1.2. GARAPEN SOZIALA	10
2. METODOLOGIA	11
2.1. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	11
2.2. LAGINA	12
2.3. PROZEDURA	13
3. LANAREN GARAPENA	14
JARDUERAK	14
4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK	20
LEHENENGO SAIOAREN EMAITZAK	20
BIGARREN SAIOAREN EMAITZAK	21
5. BIBLIOGRAFIA	24
ERANSKINAK	26



GIZA ERLAZIOEN PSIKOLOGIA: ADIMEN EMOZIONALA ETA GIZARTE HARREMANAK

Trebetasun sozialen sustapena kooperazioaren bitartez

ABSTRACT

Egungo gizartean, konpetentzia emozional maila baxuak “analfabetismo emozionala” jarri du agerian (Goleman, 1996). Arrazoi honengatik, adimen emozionala jorratu beharra dago, bai familia eta baita hezkuntza arloan ere. Hau guztiagatik, ikerketa honen xede nagusia, 7-11 urte tarteko umeen trebetasun sozialak kooperazioaren bitartez sustatzea da; izan ere, garai horretan, gizabanakoaren bizitza soziala goreneko intentsitatera heltzen da. Honetarako, Bilboko Pagasarribide ikastetxean (Lehen Hezkuntzako 5.maila) jorratzeko unitate didaktikoa aurkeztzen da. Beraz, bertako bi jardueratan lortutako emaitzak kontuan hartuz, baieztatu ahal da, honi esker, ikasleen trebetasun sozialak garatu direla eta emozionalki adimentsuagoak izatea lortuko dutela unitate didaktiko hau bere osotasunean jorratu ondoren.

Konpetentzia emozionala, adimen emozionala, hezkuntza, trebetasun sozialak, kooperazioa

En la sociedad de hoy en día, los niveles bajos de competencia emocional han dejado al descubierto el “analfabetismo emocional” (Goleman, 1996). Por esta misma razón, es necesario trabajar la inteligencia emocional, tanto en la familia, como en el ámbito educativo. Por ello, este trabajo se basa en promover las habilidades sociales a través de la cooperación en los niños de entre 7 y 11 años; de hecho, en esta etapa, la vida social de individuo llega a su máxima intensidad. Para ello, se expone una unidad didáctica para llevar a cabo en la escuela Pagasarribide de Bilbao (5º curso de Educación Primaria). Por lo tanto, teniendo en cuenta los resultados obtenidos en dos de las actividades propuestas, se puede afirmar que, gracias a ellas, las habilidades sociales de los alumnos han sido perfeccionadas y que, por lo tanto, conseguirán ser más inteligentes emocionalmente una vez llevada a cabo la unidad didáctica en su plenitud.

Competencia emocional, inteligencia emocional, educación, habilidades sociales, cooperación

In today's society, the low levels of emotional competence have left uncovered the "emotional illiteracy" (Goleman, 1996). That is the reason why there is a need to work on the emotional intelligence, both in the family and in the educational field. Therefore, this assignment is based on fostering the social skills through the cooperation among the children between the ages of 7 and 11; in fact, at this stage human being's social life reaches its maximum intensity. To get this purpose, it is proposed a syllabus to be carried on Pagasarribide school in Bilbao (5th year of Primary Education). Hence, taking into account the results obtained in two of the proposed activities, it can be said that, thanks to them, children's social skills have been improved and they will be more emotionally intelligent once they have completed the whole syllabus.

Emotional competence, emotional intelligence, education, social skills, cooperation

SARRERA

Adimen emozionala kontzeptua oso berria da adimen koizientearekin alderatzen badugu. Azken honen ikerketan hamaika pertsona hasi ziren ia orain dela mende bat. Haren ikerketak eta aplikazioak batez ere adimen akademikora zuzenduta egon dira.

Adimen koiziente altua edukitzeak ez du ez prestigio ezta zoriontasun bermerik ematen ere. Hala ere, eskolan gaitasun akademikoen garapenari garrantzia ematen jarraitzen zaio, eta askotan adimen emozionalaren garapenaren kaltetan (Goleman, 1996).

Adimen emozionala sentimenduen, nortasunaren eta bulkada moralaren lotura bihurtzen da (Goleman, 1996). Ezin dugu ahaztu bulkada emozioaren ibilgailua dela eta bulkada guztien funtsa ekintza bultzatzen duen sentimendu hedakorrean dagoela.

Adimen emozionalarekin erlazionaturiko esku-hartzea behar beharrezkoa duten hainbat egoera dago bai familia, bai hezkuntza eta bai gizartearen alorrean.

Lehenik eta behin, nerabeen konpetentzia emozional maila baxuak “analfabetismo emozionala” (Goleman, 1996) deritzona jarri du agerian. Horrek moldagabeziarekin erlazionaturiko jarrerak eragin ditu (Bisquerra, 2003), besteak beste: substantzia kaltegarrien kontsumoa (droga-kontsumoa), kultur aniztasuna, elikadura-nahasteak (anorexia, bulimia); emakumeen kontrako indarkeria, nahi gabeko haurduntza, suizidio eta indarkeria mailaren igoera, bai eskolan, bai eskolatik kanpo: eskolako *bullying* delakotik hasita, eskuko telefonoarekin grabatu eta Interneten esekitzen diren isekatarata arte (*cyber-bullying* delakoa).

Bestalde, emozioek, erabakiak hartzeko orduan duten eraginaren inguruan Damasiok egindako azken ikerketek eta, ondorioz, CI delakoak (adimen akademikoa) gizabanakoaren lorpen profesionala lortzeko berez eragin urria duela frogatzeak) agerian utzi dute garapen emozionala ezinbesteko osagaia dela garapen kognitiboan (Fernández Berrocal eta Extremera Pacheco, 2005).

Ikuspegi psikopedagogikoari dagokionez, esku-hartze sozioemozionala oso garrantzitsua dela frogatu da (Álvarez, 2001), eta horren adibide dira eskola porrota, ikasteko

zailtasuna, ikasketak alde batera uztea, ikaskideekin harremanak izateko zailtasunak, etab. Egoera hauek heldutasun emozionalaren urritasun nabarmena eta egoera emozional negatiboak sortzen dituzte eta, ondorioz, ikasleek jarrera eta motibazio falta handia dute arlo akademikoan.

Gainera, kontuan izan behar dugu 7-11 urte tartean gizabanakoaren bizitza soziala goreneko intentsitatera heltzen dela eta kooperatibo bihurtzen dela umea (Cousinet, 1969). Gauzak besteen ikuspuntutik ikusteko gai izaten da, eta, beraz, aurreko estadioetako egozentrismoa gainditu egiten du (Piaget, 1929). Beraz, kooperazio giroa da trebetasun sozial egokiak garatzeko giro sozialik egokiena, beste ezaugarri batzuen artean, talde barneko kohesioa sustatzen duelako, joera prosozialak bultzatzen dituelako taldearen barnean eta trebetasun sozialak eta arazoak konpontzeko gaitasuna areagotzen dituelako (Jhonson eta Jhonson, 1986).

Honekin batera, eta aipatutako egoerak kontuan hartuz, adimen emozionalaren garapena, eta beraz, konpetentzia emozionalen garapena (Bisquerra, 2003; Goleman, 1996) ikasgelan izan daitezkeen arrisku-faktoreen prebentzioan zentratzen da ikasleen emaitzak hobetu eta motibazio falta eta erasoak ekiditeko (Ibarrola, 2004); horrez gain, ikasleen arteko harremanak eta ikasleen ongizate subjektiboa hobetzea ere du helburu (Extremera Pacheco eta Fernández Berrocal, 2005).

UNESCOrentzat egindako Hezkuntzak altxorra du bere baitan (La educación encierra un tesoro) txostenak (J. Delors, 1996) XXI. mendeko hezkuntzaren oinarriak ezartzen ditu: ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarbizitzen ikasi eta izaten ikasi. Hezkuntza emozionalak azken bi oinarriak lantzen ditu.

Beraz, esandako guztia kontuan hartuta, adimen emozionalaren barruan dauden trebetasun sozialak irakaskuntza formalean lantzeko beharra ikusten dudanez, hona hemen honen inguruan egindako lana.

1. ESPARU TEORIKO ETA KONTZEPTUALA

1.1. ZER DA ADIMEN EMOZIONALA?

Adimen Emozionalari buruz hitz egiten dugunean onartutako bi kategorizazio kontzeptual aurki ditzakegu. Alde batetik, informazio prozesatzearen eredu mistoa eta, bestetik, trebetasunen eredu ditugu (Mayer, Salovey eta Caruso, 2000).

1.1.1. EREDU MISTOA

Gure herrialdeko hezkuntza arloan hau izan da eredu teorikorik hedatuena Golemanen “Emotional Intelligence” best-sellerraren arrakastaren eraginez.

Egile honek bost osagai erabakigarri bereizten ditu adimen emozionalaren garapenean: norberaren emozioen ezagutza, emozioen bideratzea, auto-motibazioa, enpatia eta trebetasun sozialak. Lehenengo hiru dimentsioak pertsona beraren araberakoak dira (nor bere buruaren jakitun izan, norberaren aldarteak kontrolatzen eta nork bere burua motibatzen jakiten duena. Beste bi dimentsioak (enpatia eta trebetasun sozialak) gainerako pertsonetik harremanarekin lotuak daude, eta biek gaitasun soziala egituratzen dute (Feijoo eta Lasuen, 2008).

- A. **Norberaren emozioen ezagutza.** Momentu bakoitzean esperimintatzen eta sentitzen denaz ohartzeko gaitasuna, eta horren ondorioz bakoitzak daukan jokaeraren arduraduna dela kontziente izateko ahalmena. (Nire emozioak nireak dira eta ni naiz beraiekin egiten dudaren arduraduna).
- B. **Emozioen bideratzea.** Beldurra, frustrazioa, amorrua, errua eta tristura bizitzako zailtasunei aurre egiteko moduak dira. Gure zerebroak haien bitartez laguntzen gaitu aurrera joaten. Emozionalki inteligenteak diren pertsonak badakite sentimenduak onartzen, arlo seguruetan espresatzen eta oreka berreskuratzeko jokatzeko.
- C. **Auto-motibazioa.** Emozioak ordenatzeko gaitasuna merezi duten helburuak lortzeko. Emozionalki inteligenteak direnak baikorrak eta borondate handikoak dira, ez dira zailtasunen aurrean beldurtzen, pazientzia daukate, itxaroten dakite eta lanean jarraitzen dute inporta zaien lortu arte (pertseberantzia).

- D. **Enpatia.** Besteen esperientzia eta sentimenduak ulertzeko gaitasuna. Sentimendu horiekin bat egiteko eta lasaitzeko ahalmena, besteak oreka berreskuratzen lagunduz.
- E. **Trebetasun sozialak.** Emozionalki inteligenteak direnak lagunak egiten eta hauek mantentzen dakite, gatazketan ondo moldatzen dira eta guztientzat onargarriak diren konponbideak bilatzen dituzte. Beste ezaugarri bat Asertibitatea da. Pertsona asertiboek, bere burua baieztatzen dute (autobaieztapena), manipulazioa eta txantaje emozionalari ez diote erantzuten, muga osasuntsuak ipintzen dituzte besteekin, besteak errespetatzen dituzte eta besteengandik errespetatuak izatea lortzen dute.

1.1.2. TREBETASUNEN EREDUA

Salovey eta Mayer autoreentzat Adimen Emozionala emozioen erabilera egokitan eta gure pentsamenduan izandako aplikazioan oinarritutako adimen garbia da. Honen arabera, emozioek gatazkak konpontzen laguntzen dute eta, era berean, gure ingurunerako adaptazioa errazten dute. Emozioen ikuspuntu funtzional honek adimenari buruzko definizio klasikoan antza dauka etengabe aldatzen ari den ingurunearekiko egokitzapena azpimarratzen duelako (Sternberg eta Kaufman, 1998). Definizio honetatik abiatuta, Adimen Emozionala kontsideratzen da informazio emozionalaren prozesatzean oinarritutako trebetasun bat. Honek, emozioak eta arrazoiketa bateratzen ditu eta gure emozioen erabileraren arrazoiketa egonkorragoa ahalbidetzen du (Mayer eta Salovey, 1997).

Eredu mistoetan ez bezala, autoreek defendatzen dute gure emozioen informazio nabarmena prozesatzeko trebetasuna bezala ulertutako Adimen Emozionalak pertsonalitatearen ezaugarri egonkorretatik bereizita dagoela (Grewal eta Salovey, 2005).

Mayer eta Saloveyren trebetasunen ereduaren arabera Adimen Emozionala oinarritzeko lau trebetasunen bidez azaltzen da. Lau trebetasun horiek honako hauek dira: emozioak zehazki hautemateko, baloratzeko eta espresatzeko gaitasuna; pentsamendua erraztuko duten sentimenduetara heltzeko eta/edo horiek sortzeko gaitasuna; ezagutza

emozionaleko gaitasuna eta emozioak erregulatzeko gaitasuna hazkuntza emozionala eta intelektuala sustatuz (Mayer eta Salovey, 1997). Beraz, hona hemen Mayer eta Salovey autoreek azaldutako lau trebetasunak:

- A. **Pertzepzio emozionala.** Besteen sentimenduak eta sentimendu propioak identifikatzeko eta antzemateko gaitasuna da. Honek dakar aurpegiko espresioan, gorputzaren mugimenduan eta ahots tonuan arreta berrezia jartzea eta hauek ematen dizkiguten seinaleak zehazki deskodetzea. Amaitzeko, gaitasun honek besteek espresatutako emozioen eta sentimenduen zintzotasuna eta ondradutasuna zuzenki bereizteko ahalmena biltzen du.
Klasean, adibidez, ikasleek egunero praktikan jartzen dituzte trebetasun hauek bere akzioak erregulatzeko dituztenean irakaslearen begirada zorrotza jaso eta gero.
- B. **Emozioen erraztea edo asimilazioa.** Trebetasun honek arreta jartzen dio emozioek sistema kognitiboan izaten duten eraginari eta gure emozio-egoerak erabakiak hartzerako orduan izaten duten eraginari. Arazoen ikuspuntua aldatzen da egoera emozionalaren arabera. Hau da, gaitasun honi esker, gure emozioak era positiboan jarduten dute informazioa prozesatzeko eraren eta gure arazoiketaren gainetik. Adibidez, ikasle batzuk gogo-egoera positiboa behar dute kontzentratzeko eta ikasteko; beste batzuk, ordea, memorizatzea eta arazoitzea ahalbidetzen dien tentsio egoera zehatz baten aurrean egoteko beharra dute.
- C. **Ulermen emozionala.** Seinale emozionalen erreperitorio konplexu eta zabala xehatzeko emozioak etiketatzen eta sentimenduak batzen diren mailak bereizten dituen gaitasuna da. Bestalde, emozio konplexuen esanahia interpretatzeko gaitasuna barne hartzen du. Honen barne, egoera emozional batetik bestera pasatzeko trebezia dugu eta sentimendu kontraesankor eta aldiberekoen agerpena. Ikasleek ulermen emozionaleko gaitasuna erabiltzen dute egoera zail batean (adib. nota txarrak, gurasoen banaketa, gaixotasuna...) dagoen kide baten tokian jartzeko eta laguntza eskaintzeko.
- D. **Erregulazio emozionala.** Adimen emozionaleko gaitasunik konplexuena da. Dimentsioa honek sentimendu positibo, zein negatiboetara ireki egoteko gaitasuna bere barne hartzen du eta baita haiei buruzko gogoeta egiteko trebezia haiek

ematen diguten informazioa aprobetxatzeko edo baztertzeko. Gainera, bere gain hartzen du gure emozioak eta besteenak erregulatzeko gaitasuna, emozio negatiboak baretzen eta positiboak biziagotzen. Beraz, gure mundu intrapertsonal eta interpertsonalaren erabilera barne hartzen ditu, hau da, besteen emozioak erregulatzeko, gure sentimenduak, zein besteenak aldatzen dituzten hainbat erregulazio-estrategia gauzatu. Adibidez, ikasle bat gatazka interpertsonal batean sartzen den bakoitzean, (adib. ume batek besteari baloia kentzen dio) gatazkaren erantzun ez oldarkor bat emateak erregulazio edo egoera interpertsonalen erabilera eragiten du. Era berean, azterketa garaia denean eta ikasleen antsietatea igotzen hasten denean, ikasle bakoitzak erregulazio intrapertsonaleko estrategia desberdinak aurrera eramaten ditu estreseko garai hori igaro ahal izateko etekinean eraginik izan gabe (adib. besteekin hitz egitea sentitzen dugun urduritasunari buruz, kideei laguntza eskatzea, musika entzutea...).

1.2. HAURREN GARAPEN KOGNITIBO ETA SOZIALA

Piageten ustez, ezagutzaren garapenak hainbat garapen-aldiak ditu. Alde batetik, garapen-aldiak, beti ordena berean agertzen dira eta ordena hori aldaezina da. Beste aldetik, garapen-aldien artean, harreman hierarkiko inklusibo bat dago: aurreko estadioaren egiturak hurrengo estadioko egituretan integratzen dira. Nolabait, bata bestea gainditzearekin, beste maila bat lortzen da. Piagetek lau estadio bereizten ditu: adimen sentsomotorraren estadioa (0-2), eragiketa aurreko pentsamenduaren estadioa (2-7), eragiketa konkretuen estadioa (7-11) eta eragiketa formalen estadioa (11+) (Piaget, 1929).

1.2.1 7-11 URTEKO UMEEN GARAPENA

1.2.1.1. GARAPEN KOGNITIBOA

Aurretik esan dugun bezala, hirugarren estadioa *eragiketa konkretuen* estadioa da eta zazpi urtetik hamaika urtera arte doa. Momentu horretan, umea logikaren jabe egiten da. Hori dela eta, eskolara joateko garaia eta arrazoia erabiltzeko garaia da (Piaget, 1929). Eragiketa mentalak edo konkretuak egiteko gaitasuna areagotzen da, ikus daitezkeen objektuekin egiten direlako; hau da, umeak ikusi edo manipulatu behar dituzten objektu horiek.

Umeak “eskuekin eta begiekin” pentsatu egiten duela esan daiteke. Ildo horretan, Piagetek dioenez, eragiketen aukera pentsamenduaren oinarritzko eskematik dator. Adibidez, ume bati bi plastilinazko zati ematen zaizkio moldeatzeko. Batekin, pilota bat egiten du eta, bestearekin, berriz, “saltxitxa” bat. Forma horiek interpretatzeko, zazpi urteren aurretik, umeak uste du materia aldatu egin dela (bolumena eta masa); zazpi urterekin, materiaren trinkotasuna onartzen du; bederatzirekin, umea pisuaz ohartzen da; eta, hamaika urterekin, bolumena ere hartuko du kontuan. Garai horretan, arlo sozialean, kooperatibo bihurtzen da umea, gauzak besteen ikuspuntutik ikusteko gai izaten baita, eta, beraz, aurreko estadioetako egozentrismoa gainditu egiten du.

1.2.1.2. GARAPEN SOZIALA

Bizitza soziala: lagunak

Urte tarte honetako umeen pentsamendua ulertu ahal izateko, lagunentzako kanpo aztertu behar ditugu (Beets, 1954). Garapen-aldi hau “grazia sozialeko adina” da, non gizabanakoa sinbiosi maila handian bizi da taldearekin eta gizabanakoaren bizitza soziala goreneko intentsitate batera heltzen dela esan daiteke (Cousinet, 1969).

Aurreko etapetan, berehalako helburua talde iragankorrak sortzea bazen ere, frogatzen da 9 urtetik aurrera talde horiek trinkotasuna eta egonkortasuna eskuratzen doazela; momentu horretatik aurrera, ume berdinak izango dira jolasteko batzen direnak eta lagun-talde hori sortzerakoan kideen aukeraketa gauzatuko da. Onespenez sozial hau, ospea, haurren pertsonalitatearen arabera gauzatzen da, eta, beraz, pertsonalitate hori sortzen lagundu duten bizipenen arabera. Gogoratu behar dugu umea momentu horretara arte bere gurasoekiko eta bere barneko zintzotasunarekiko zenbat eta mehatxu txikiagoa jaso, orduan eta aldekoagoa izango dela taldearen barruan integrazera eta bertan rol positibo bat izatera. Ume onartu eta ez onartuei buruzko konparazio-ikerketek ezagutarazten dute ospe eza, orokorrean, afektibitate moldatu ezinaren adierazgarria dela; ospe eza berak sendotu egiten duen moldatu ezina. Ikerketa hauetatik ondorio pedagogikoa ateratzen da: onarpen ezeko ume gehiago daude familia-erregimen autoritario eta zorrotzetan, eta onarpen handiagoko ume gehiago daude erregimen demokratiko eta liberaletan (Cousinet, 1969).

Era honetan, taldea finkatzen eta egituratzen da nagusiak eta erakargarriak diren kideen inguruan eta haiek izango dira taldearen muina osatuko dutenak. Hauen artean, batzuk buruzagi edo sustatzaile gisa ezarriko dira. Lagun-taldea sozietate autokratiko eta aristokratikoa da: “sustatzailea” bere “mendekoez” inguratuta, taldearen elitea osatuko du. Gainerako umeek, “troparen” rola hartuko dute, eta esan ahal da mendekotasun txikiago edo handiagoarekin buruzagiek esandakoa betetzen dutela. Bakarrik etapa honen amaierara heltzen garenerako, 11 urte inguruan, lagun-taldeak izaera gero eta demokratikoagoa hartuko du (Hubert, 1949).

Aldi berean, taldeek homogeneousutasuna irabazten dute adin desberdina duten gizabanakoen kanporatzeagatik. Txikiak direnak “umetxotzat” hartzen dituzte haiek bilatzen dutena “nagusi” bezala berreztea delako; nagusienak direnak, ordea, taldeko jolas-ekintzetan interesa galtzen dute edo ia heldutzat hartzen dituzte eta haien presentziak taldeko gainerako kideek aipua galtzea eragiten du. Bestetik, taldeak sexuaren arabera gauzatzen dira. Neska-mutilak arazorik gabe batera lan egiten dute 7/8 urtera arte; 8/9 urtetik aurrera, sexu bereko kideak begikoak izaten dituzte. Haustura hau goreneko garaira heltzen da 9-12 urte tartean, eta aurkakotasun nabarmen baten bidez adierazten da (Gesell, 1946).

Laburbilduz, 7-11 urte tartean, umea, bere taldeari esker, sozietateari buruzko esperientzia gauzatzen du, non bere kideak dira, aldi berean, berdinak eta desberdinak haien artean. Esparru honetan, umeak hasierako egozentrismoaren aurkako antidoto paregabea izango diren elkarrenganako lehenengo erlazio sozialak gauzatu ahal izango ditu. Gainera, inplizituki, irudi propioa eratu ahal izango du eta, besteen laguntzari eta erreakzioei esker, bere ezaugarri eta jomugez jabetuko da.

2. METODOLOGIA

2.1. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Lan honen bidez funtsean lortu nahi dena da adimen emozionalaren barruan ulertzen diren trebetasun sozialak sustatzea teknika eta jarduera kooperatiboen bitartez. Honekin batera, honako helburu hauek izango ditugu: komunikatzea, kooperazioan aritzea,

emozioak adieraztea, sormen dramatikoa lantzea, talde barnean kohesioa izatea, ahozko sormena lantzea, sormen grafiko-figuratiboa lantzea eta sormen plastiko-eraikitzailea lantzea.

Beraz, unitate didaktiko hau gelan landu eta gero, umeak kooperatiboagoak izango dira eta ez dituzte hainbeste eragozpenik izango lan bat taldeka aurrera eramaterakoan. Gainera, saio bakoitzean taldekatze ohikoenak apurtuko direnez eta taldekide desberdinekin lan egiteko aukera izango dutenez, trebetasun sozialak landuko dituzte eta emozionalki inteligenteagoak izatea lortuko dute. Era honetan, desadostasunak sortzen diren momentuetan edota egoera gatazkatsuetan, hobeto moldatuko dira eta guztientzat onuragarriak diren konponbideak bilatzen ikasiko dute.

2.2. LAGINA

Unitate didaktiko hau abian jartzeko Bilbo herriko Pagasarribide ikastetxe publikoa aukeratu da. Honen barruan, bosgarren mailan landuko da; beraz, kontuan izanez gela honetan ez dagoela errepikatzailerik, umeen adinak 10-11 urte tartean daude.

Klase honetan 19 ume daude, horietako 11 mutilak izanik eta gainerako 8ak neskak. Haien arteko harremanak, onak izan ohi dira eta, orokorrean, ez dute inolako eragozpenik jartzen taldeko lanak egiterako orduan. Hala ere, hasiera batean talde mistoetan eserita bazeuden ere, talde aldaketa egitea proposatu zenean mutilak mutilekin egotea erabaki zuten eta neskak neskekin. Beraz, argi geratzen da adin honen ezaugarriak bereizgarrietarikoa: taldeak sexuaren arabera gauzatzen dira (Gesell, 1946) eta, gainera, kasu zehatzetan, nabariak izan dira “sustatzaile” eta “mendekoen” rolak (Hubert, 1949).

Hala ere, unitate honen helburu nagusia denen arteko kooperazioa lantzea denez, taldekatzeak egiterako orduan, kasu askotan aurretik ezarrita dauden egitura horiek apurtuko dira, eta posiblea den neurrian, talde nahiko heterogeneoak egiteko saiakera egingo da ariketa bakoitzean denek kide desberdinekin lan egiteko aukera izateko.

2.3. PROZEDURA

Unitate didaktiko hau abian jarriko da kurtso akademikoaren bigarren hiruhilekoan, urtarrilak 8 inguru. Izan ere, kurtsoko lehenengo hiruhilekoan zehar klaseko egoera eta giroa ebaluatuko da, eta hau kontuan hartuz, baloratuko da unitate didaktikoa dagoen bezala uztea edo aldaketaren bat egitea. Gainera, interesgarria denez kurtso bi klaseetan lantzea, lortutako emaitzak alderatzeko, lehenengo hiruhilekoa beste tutorearekin ados jartzeko eta jarduteko era bateratzeko eta zehazteko erabiliko da.

Iraupenari buruz esan behar da, hasiera batean, sei saioetan lantzeko prestatuta dagoela eta tutoretza irakasgaiari jardungo dela. Hala ere, proposatutakoa nahiko subjektiboa denez eta taldearen arabera beharreko denbora alda daitekeenez, iraungo duen denbora ez da ezaguna.

Bestetik, aipatu behar da tutoretza saioak asteen behin direla eta, gainera, kontuan hartu behar da ere, ikastetxe honetan foro bat egiten dutela hileko askeneko asteen, tutoretza saioetan. Foro honetan, bost urtetik aurreko gela guztien ordezkari bat biltzen da ikastetxeko jantokiaren arduradunarekin eta ikasketa buruarekin gela bakoitzeko kezkei eta gorabeherei buruz hitz egiteko. Hau behin eginda, hurrengo asteko tutoretza saioa bertaratutakoak komentatzeko erabiltzen dute; horregatik, hilabete bakoitzean hiru saio soilik geratuko litzateke unitate didaktiko hau abian jartzeko.

Beraz, hau guztia kontuan hartuta, bi hilabete inguruko iraupena izango luke unitate didaktiko honek.

3. LANAREN GARAPENA

JARDUERAK

1.SAIOA

EZAGUTU ZER DEN EMOZIOA

ESPAZIOA	Gure gela
DENBORALIZAZIOA	45 minutu
MATERIALA	Ez dugu material zehatzik erabiliko

HELBURUAK

- Komunikatzea
- Kooperazioan aritzea
- Emozioak adieraztea
- Sormen dramatikoaren lantzea



METODOLOGIA

Haur guztiak 3-4 jokalariz osatutako taldeetan banatuko dira. Helduak emozio bat emango dio talde bakoitzari. Esate baterako, tristura, maitasuna, gorrotoa, amorrua, bekaizkeria, beldurra... Talde bakoitzeko jokalariek 15-20 minutu izango dituzte mimikaren bitartez egoera nola antzeztuko duten erabakitzeke. Antzeztu ostean, gainerako jokalariek asmatu beharko dute zer emozio edo sentimendu den antzeztutakoa. Esate baterako, tristura emozioa adierazteko, eszena triste bat antzez dezake, besteak beste, hileta bat. Denbora tarte horretan, taldekideek erabakiko dute nola antzeztu ahalik eta modu garbienean emozio hori; antzezpenerako behar duten bestelako zernahi material osagarri erabiliko dute. Ondoren, talde bakoitzak bere antzezpena egingo du, txandaka-txandaka. Gainerako taldeek asmatu beharko dute zein den adierazitako emozioa, eta taldeari jakinarazi beharko diote ahots ozenez: txandaka-txandaka hori ere, pertsona helduak adierazitako moduan. Antzeztutako emozioa zein den asmatzen ez badute, pertsona

helduak laguntza eskaini dezake: azalpenak emanez, edo ikusitakoaren gainean galderak eginez... Gainerakoek asmatzea baita helburua. Edo, bestela, antzezten ari den taldeari antzezteko beste modu batzuk iradoki diezazkioke. Talde bakoitzak bere antzezpena amaitzerakoan, ikasle bakoitzak ozenean esango du bere kideen aurrean berak emozio edo sentimendu hori antzemango lukeen egoera.

2.SAIOA

ESPEZIEEN BILAKAERA BERRIA

ESPAZIOA	Gure gela
DENBORALIZAZIOA	60 minutu
MATERIALA	<ul style="list-style-type: none"> - Animalia motei buruzko argazkiak - Lau lekeda - Lau DIN A-3 folio - Lau guraize

HELBURUAK

- Komunikatzea
- Kooperazioan aritzea
- Sormen plastiko-eraikitzailea lantzea



METODOLOGIA

Ikasleak bost edo sei kidez osatutako taldetan banatuko dira. Talde bakoitzari material hau emango zaio: hainbat animaliarri buruzko material grafikoa (argazkiak edo marrazkiak), DIN A-3 orri zuri bat, guraize pare bat talde bakoitzarentzat eta itsasgarria. Taldean animalia espezie bat asmatu beharko dute. Horretarako, talde bakoitzeko kideek animalien argazkiak hautatu beharko dituzte, eta ondoren, erabaki, animalia gorpuzteko atalak elkarrengandik bereiziz: belarriak, begiak, hankak... Behar adina animalia atal lortu dituztenean, paperean itsatsi beharko dituzte, eta horrela, animalia berri bat asmatuko dute, existitzen diren animalien ataletatik abiatuta. Taldeak bere lana amaitzen duenean, izen bat asmatu beharko du animalia berriarentzat, eta animalia berriaren deskribapen txiki bat egin beharko du, esate baterako, zer animalia mota den (lurrekoa, itsasokoa, hegaztia...), zer jaten duen, non bizi den... Ondoren, denak talde handian bilduko dira, asmatutako

antzezpena egiteko behar diren materialak prestatuko dituzte, eta mozarrotu egingo dira. Hirugarren fasean, talde bakoitzak, txandaka, bere istorioaren antzezpena egingo du.

4.SAIOA

LAUKIZUZEN, PUNTU ETA LERRO GAINEKO MARRAZKIA


ESPAZIOA	Gure gela
DENBORALIZAZIOA	45 minutu
MATERIALA	<ul style="list-style-type: none"> - Hamabi DIN A-3 folio - Hamabi borragoma - Hamabi arkatz - Margo kaxak

HELBURUAK

- Komunikatzea
- Kooperazioan aritzea
- Sormen grafiko-figuratiboa lantzea

METODOLOGIA

Jolas honetan jokalariak binaka jarriko dira. Bikote bakoitzari material hau emango zaio: DIN A-3 folio bat (folio bikoitza), bi arkatz, ezabagoma bat eta margo kaxa bat. Folioan laukizuzen bat, lerro bat eta puntu bat daude marraztuta. Jolasaren arauak honako hauek dira: “Irudi horiek oinarri hartuta, bikote bakoitzak marrazki bat egin beharko duzue, esate baterako pertika jauzilari bat. Zer marrazki egingo duzuen erabakitzeko, kideen artean hitz egin, bakoitzak bere ideiak bota ditzan. Ondoren, ideia horiek irudikatzeko zer prozedura erabiliko duzuen erabaki beharko duzue bien artean. Marrazkia amaitu eta gero, ideia gehiago bururatzen bazaizkizue, hartu beste horri bat oinarrizko formekin eta marraztu bururatzen zaizkizuen guztiak. Amaieran, lan erakusketa bat egingo dugu marrazki guztiekin”.



5.SAIOA

ANIMALIEN ERALDAKETA


ESPAZIOA	Gure gela
DENBORALIZAZIOA	45 minutu
MATERIALA	<ul style="list-style-type: none"> - Hogeita lau DIN A-3 folio - Hogeita lau arkatz - Hogeita lau borragoma

HELBURUAK

- Komunikatzea
- Kooperazioan aritzea
- Sormen plastiko-eraikitzailea lantzea

METODOLOGIA

Jolas honetan jokalariek lurrean eseri behar dira, biribilean. DIN A-3 orri zuri bat eta arkatz bat jasoko dute. Jolasaren lehenengo fasean, orria bitan banatuko dute, lerro baten bitartez, eta jokalaria bakoitzak animalia baten marrazkia egingo du orriaren goiko aldean. Marrazkia amaitzen dutenean, eskuinean duten jokalaria emango diote; aldi berean, ezkerrean duten jokalaria marrazkia jasoko dute. Jolasaren bigarren fasean, orriaren beheko aldean beste animalia bat marraztu beharko dute, baina marrazki berrian, nahitaez, goiko zatiko animalia zati bat sartu beharko dute. Era horretara, aurretik marraztutako animalia eraldatzen da, eta osagai hori erreferentzia hartuta, animalia berri bat marrazten da. Animalia berria marraztu ondoren, orriaren beheko aldean eraldaketaren deskribapena egingo dute. Adibidez: lehenengo jokalaria elefante bat marraztu du, eskuineko ikaskideari pasa dio eta bigarren horrek tximeleta bat marraztu du elefantearen belarriak tximeletaren hego bihurtuta. Azkenik, marrazki guztiak horman zintzilik jarriko dira, erakusketa moduko bat osatzeko; era horretara, taldeko kideek bi animaliak ikusi ahal izango dituzte, originala batetik (orriaren goiko aldean), eta bestetik, eraldatua (beheko aldean).



6.SAIOA

EPAIKETA

ESPAZIOA	Gure gela
DENBORALIZAZIOA	60 minutu
MATERIALA	Ez dugu material zehatzik erabiliko

HELBURUAK

- Komunikatzea
- Talde barnean kohesioa izatea
- Kooperazioan aritzea
- Ahozko sormena lantzea
- Sormen dramatikoa lantzea



METODOLOGIA

Jolasaren ardatza epaiketa bat antolatzea da. Hau da, delituren bat egitea, legeren bat urratzea, zuzena ez den jokabide bat izatea... Haurrek modu askean aukeratuko duten arrazoiren bat. Aukeraketa egiteko, taldekideek eztabaidatu beharko dute zein ote diren epaitzeko moduko delitu edo jokaera ez-moralak. Hala, guztien adostasunarekin, taldearentzako interesgarriena den delitua aukeratu beharko dute. Horren ostean, akusatua aukeratu beharko dute, eta rola banatu beharko dituzte: abokatu defentsaria eta haren laguntzaileak, fiskala eta haren laguntzaileak, lekukoak, epaimahaikideak eta epailea. Rola ausazko jolasen bitartez bana daitezke, edo, bestela, jokalaria bakoitzari rol bat daukan txartel bat emanda, epaimahaiko bost kideak izan ezik, gainerako guztiak bi taldetan banatuko dira. Bi taldeek 15-20 minutu izango dituzte lanerako. Defentsarako taldea defentsa prestatzeko bilduko da, eta taldekideek aldeko argudioak prestatu beharko dituzte: 3 lekuko izango dituzte eta akusatuari elkarrizketa egin ahal izango diote. Fiskalaren taldea, berriz, akusazioa prestatzeko bilduko da: 3 lekuko izango dituzte eta akusatuari elkarrizketa egin ahal izango diote. Ondoren prozesua aurkeztuko dute, eta epaimahaikideek beren epaia emango dute. Adierazi beharko dute erabateko adostasunez edo gehiengoz hartu duten erabakia. Epaimahaikideen rola jokatzen duten jokalariek osatu beharko dituzte antzezpenerako behar dituzten materialak.

4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Lan hau aurrera eramateko asmoarekin, unitate didaktikoan planteatutako jardueretatik bi eraman dira praktikara, kontuan izanik esku hartzearen helburua zela adimen emozionalaren barruan dauden trebetasun sozialak sustatzea teknika eta jarduera kooperatiboen bitartez.

Hasiera batean, kooperazio gabezia nabaritzen zen. Zehazki, taldekatzerako orduan, beti talde berdinak sortzen ziren, eta talde horiek aldatzen zirenean, zailtasunak izaten zituzten talde berriarekin lan egiteko eta desadostasunak eta gatazkak sortzen ziren. Beraz, egoera hau behatu eta gero, lan hau aurrera eramatea garrantzikoa dela azalera zen gabezi hori nolabait konpentsatzeko, eta azken finean, umeak emozionalki adimentsuagoak izateko.

LEHENENGO SAIOAREN EMAITZAK

Martxan jarri zen lehenengo ariketa 1. saioari dagokiona da. Hasteko, froga gisa, haiek nahi izan zuten taldeak osatu zituzten, eta talde batean izan ezik, gainerako guztietan sexuaren arabera taldekatu ziren. Hau behin eginda, ariketaren azalpena eman zitzaie eta, jarrian, talde bakoitzari papertxo bat eman zitzaie egokitutako emozioaren izenarekin. Hauek izan ziren landutako emozioak:



AMORRUA

TRISTURA


BELDURRA

HARRIDURA

POZTASUNA

Antzezpenean egin beharrekoak adosteko zituzten hogeita hamar minutuak pasa eta gero, talde bakoitzak honen antzezpenean egin zuten eta gero, banan-banan, emozio hori sentituko lukeen egoera esan zuten denen aurrean. Prestaketaren prozesuan, taldekide gehienak buru-belarri egon ziren haien lagunekin lan egiten; hala ere, bazegoen mutilen talde bat zailtasunak izan zituen egin beharrekoa adostean. Beraz, haiekin hitz egin eta gero eta baliagarriak izan zitekeen ideiak eman eta gero, aurrera egin ahal izan zuten.

Ariketa honen amaierako fasera heltzerakoan, ariketa bat gehitu zen haien iritsi pertsonala jakin ahal izateko, eta bide batez, ariketa honen eraginkortasuna frogatzeko. Dinamika honen emaitzak lehenengo irudian ikusi daitezke.



1. irudia: 1. saioaren emaitza subjektiboak

Azkeneko galderaren bigarren atalean, haien erantzunaren zergatia azaldu behar izan zuten eta, orokorrean, denek esan zuten dibertitu zirela antzezpenean prestatzean eta egitean eta ondo sentitu zirela ariketa honen garapenean. Hala ere, honekin batera ez zetozen umetako bat zegoen, antzezpenean prestatzean zailtasunak izan zituen taldekoa hain zuzen, eta ariketa hau oso aspergarria izan zela argudiatu zuen. Beraz, honako emaitza hauek ikusita, ondorioztatu ahal da taldekide gehienek gustura egon zirela ariketa honetan parte hartzean eta kooperazioa osoa izan zela.


BIGARREN SAIOAREN EMAITZAK

Martxan jarri zen azkeneko ariketa 2. saioari dagokiona da. Ariketa hau egiteko, sexuen araberrako talde berriak sortu zituzten ikusteko ea nola moldatzen ziren haien sexu bereko taldekideekin batera lan egitean. Hasiera batean, batzuk desadostasuna erakutsi zuten

erabakiak hartzerakoan baina, denbora aurrera zihoan ahala, batera lan egiten eta erabakiak hartzen hasi ziren. Ariketa honetan sormen eta kooperazio handia behar zen; izan ere, animalia espezie berri bat sortu behar zuten eta honen izena eta deskribapena asmatu behar zuten.

Ariketa honetan zehar, emaitza eta lan erritmo desberdinak antzeman ziren. Batetik, talde batzuk (neskak batez ere), errazago moldatzen ziren taldean lan egiten eta sormen handia erakutsi zuten. Bestetik, beste talde batzuk, zailtasunak erakusten zituzten haien ideiak bateratzeko eta emaitza komunak ateratzeko. Kasu hauetan, tutorearen laguntzari esker, sortutako desadostasunak baretu ziren eta lana bideratu ahal izan zen.

Hala ere, hasieran desberdintasun nabariak bazeuden ere, talde guztiak aurrera atera zuten haien lana, batzuk beste batzuk baino arinago. Ariketa honen amaierako fasera heltzerakoan, aurrekoan bezala, ariketa bat gehitu zen haien iritsi pertsonala jakin ahal izateko, eta bide batez, ariketa honen eraginkortasuna frogatzeko. Dinamika honen emaitzak bigarren irudian ikusi daitezke.



2. Irudia: 2. saioaren emaitza subjektiboak

Ariketa honen emaitzak aztertzerakoan, desberdintasunak antzeman ziren aurrekoaren emaitzarekin konparatuz. Alde batetik, argi dago, ariketa honen konplexutasuna eta eskatutako kooperazio maila aurrekoarena baino altuagoa zela eta, honen eraginez, zailtasunak izan zituztela animalia berriaren ezaugarriak adosterakoan. Bestetik, aurrekoan kide guztiak parte hartu zutela esan bazuten ere, honetan bakar bat bustitzera ausartu zen bere taldeko kide guztiak ez zutela lan berdina egin esatera. Izan ere, ariketa honen garapenean, talde batzuetan, nabaria zen batek baino gehiagok hau uste zutela,

baina horietako bat soilik ausartu zen hori esatera. Amaitzeko, aipatu behar da oraingo honetan lortu zela ariketa hau umeen 100%-aren gustukoa izatea.

Beraz, bi ariketa hauen emaitzak ikusita, espero da proposatutako unitate didaktiko osoa behin aurrera eramanda lortutako emaitzak guztiz positiboak izatea eta ikasle guztiak, taldeka lan egitera ohituta ez dauden ikasleak barne, kooperazioan aritzea gatazkak eta desadostasunak alde batera utziz. Izan ere, unitate didaktiko honen helburu nagusia, umeen trebetasun sozialak kooperazioaren bitartez sustatzea zen; 7-11 adin tartean gizabanakoaren bizitza soziala goreneko intentsitatera heltzen delako eta umea kooperatibo bihurtzen delako (Cousinet, 1969). Beraz, trebetasun sozial horiek garatzeko, kooperazio giroa da egokiena (Garaigordobil, 2005).

5. BIBLIOGRAFIA

- Álvarez, M. (2001). *Diseño y evaluación de programas de educación emocional*.
Bartzelona: Praxis.
- Beets, N.(1954). *De Grote Jongen*. Utrecht: Bijleveld.
- Bisquerra, R. (2003). *Educación Emocional. Programa para la Educación Primaria*.
Bartzelona: Praxis.
- Cousinet, R. (1969). *La Vie sociale des enfants*. Paris: Scarabée.
- Delors, J. (1996). *La educación encierra un tesoro*. Informe a la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la educación para el siglo XXI.
- Feijoo, M.P. eta Lasuen, A (2008). *Adimen Emozionala*. Sopela: Sorkari. Gizakien Hazkunderako Laguntza Osoa.
- Fernandez Berrocal, P. eta Extremera Pacheco, N. (2005). *La Inteligencia Emocional y la educación de las emociones desde el Modelo de Mayer y Salovey*. Revista Interuniversitaria de Formación del profesorado, 19, 63-99.
- Garaigordobil Landazabal, M. (2005). *4-12 urte bitarteko haurren garapenerako kooperazio eta sormen jolasak*. (pp. 29-274). Amorebieta-Etxano: Ibaizabal.
- Garmendia Iturrioz, I. (2008). *Adimen Emozionala*. (pp. 9-10). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gesell, A. (1946). *The Child from Five to Ten*. New York: London, Harper.
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia Emocional*. Bartzelona: Kairos.
- Grewal, D. eta Salovey, P. (2005). *“Feeling Smart”: The Science of Emotional Intelligence*. American Scientist,93, 330-339.

Hubert, R. (1949). *La Croissance mentale*. Paris: Presses Universitaires de France.

Ibarrola, M. (2004). *Paradojas recientes de la educación frente al trabajo y la inserción social*. Buenos Aires: Redetis.

Jhonson, D.W. eta Jhonson, R.T. (1986). Motivation processes in cooperative, competitive and individualistic learning situations. In C. Ames eta R. Ames (Arg.), *Attitudes and attitude change in special education: Its theory and practice* (pp. 249-286). New York: Academic Press.

Lizaso Elgarresta, I. eta Apodaka Ostagoikoetxea, M. (2008). Jean Piageten garapenaren psikologia. *Giza garapen psikologikoaren ereduak I.* (pp. 153-155). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Mayer, J.D. eta Salovey, P. (1997). "What is emotional intelligence?" En P. Salovey y D. Sluyter (Eds) *Emotional Development and Emotional Intelligence: Implications for Educators* (pp. 3-31). New York: Basic Books.

Mayer, J.D., Salovey, P. eta Caruso, D. (2000). "Models of emotional intelligence". En R. J. Sternberg (Ed.), *Handbook of Intelligence* (2nd ed) (pp. 396-420). New York: Cambridge.

Osterrieth, P.A. (1984). La madurez infantil. *Psicología Infantil: Introducción a la Psicología Infantil*. (pp. 167-194). Madril: EDICIONES MORATA, S.A.


Piaget, J. (1929). *El juicio y el razonamiento en el niño*. Buenos Aires: Guadalupe

Pollán Rufo, M. (2001). GOLEMAN, Daniel: adimen emozionala, autokontrollean aurreratzen. *Hik Hasi aldizkaria*, 58.alea

Sternberg, R.J. eta Kaufman, J.C. (1998). "Human abilities". *Annual Review of Psychology*, 49, 479-502.

ERANSKINAK

LETUTIKA-KA



Animali hau oihanean bizi da. Gauean ateratzen da pertsona zaharrek jateko, kaletik joaten da eta zuzenean begiratzeko badiozu, bere begiaren magiaz desagertzen da.

Letutika-ka ipurditik jaten du eta ahotik kaka botatzen du. Bere belarriei esker uretan arnasa hartu ahal du. Aurreko hankak arrosak dira.

Arrautzetatik ateratzen dira kumeak eta 10 izan ahal ditu urtean zehar. 4 metrora heldu ahal da eta 90 kg pisua izan ahal du.

EGILEAK:

ARTZPAZERI



Azalpena: Animali hau Asian bizi ohi da. Orojalea da, denetarik jaten du. Anfibio modukoa da. Bost hanka ditu, erdikoak jauzi handiak egiteko balio du. Jaiotzean 1m batekoa izan al da, baina haztean 12m izan ahal ditu. Usaimen oso ona du. Korrika asko egin ahal du, 150km/h-ko abiadura hartu ahal du. Bakarrik neguan ateratzen da, beste animaliak lotan daudelako. Ez da oso ondo kamuflatzen. Bakartia da. Kobazuloetan bizi da. Urtean zehar mundutik bueltaka egoten da.

Egileak:

BELTXERKUNE



Azalpena: Asiako iparraldean bizi da. Oso handia da, 10 metrotik 20 metrora izan al da. 10.000kg pisatzen du. Animali honetako 20 izaki daude munduan. Sugearen buztana du, txerria eta behiaren hankak, txakurra eta txerriaren buruak eta behiaren gorputza.

Denetarik jaten du, baina bere janari gustukoena saltxipapa da. Animalien artean tximinoa eta elefantea dira lagunik onenak. Basatia da. Salto bat egiten badu ilargiraino iritsi ahal da eta pertsonak geldiarazi ditzake.

EGILEAK:

KATU OILOHEGALARIA

AZALPENA: Haragijalea da eta gizakjak jaten ditu. Gizakjak jateko burutik hasten da. Oso arriskutsua da. 50 kilo pisatzen du eta metro 1eko altuera du. Munduan bat bakarrik dago eta ez dago babestuta. Bilbon bizi da Pagasarri mendiko zuhaitzetan. Oso soinu atsegina egiten du, gizakjak erakartzeko erabiltzen du. Oso pertsona gutxi bizi dira hau kontatzeko. Inork ez dakizue zein sexu duen, zeren ez da inor ausartzen berarengana hurbiltzen.

Egileak:

